

Autoebaluazioa III-B ATALA (14-19 Ikasgaiak)

1.- Farmako antipsikotiko tipikoen ezaugarri farmakologikoen artean ondokoa dugu:

- a) D2 antagonista dopaminergikoak dira.
- b) Eskizofreniaren sintoma positibo zein negatiboak kontrolatzeko eraginkortasun berdina dute.
- c) Hartzaiile noradrenergikoekin selektiboki elkartzen dira.
- d) L-DOPAren antzeko eragin antiparkinsonianoak sortzen dituzte.
- e) Ez dute asaldura estrapiramidalik sortzen.

2.- Farmako antiepileptikoen ekintza mekanismoa aukeratu:

- a) Potasio erretenen aktibatzea
- b) GABA transmisioaren areagotzea
- c) Xafla neuromuskularreko aktibitatea murriztea.
- d) Glutamato transmisioa areagotzea
- e) Aurreko guztiak zuzenak dira

3.- Antidepressibo triziklikoei buruz, zein da zuzena?:

- a) Efektu antidepressiboa ez da berehalakoa.
- b) B-MAO entzima inhibitzen dute.
- c) Ez dituzte aurkezten eragin kardiobaskularrak
- d) Serotoninaren birxurgapena inhibitzen dute modu selektiboan.
- e) Muskulu barnetik eman behar dira.

4.- Farmako hauen artean, zein erabiltzen da asma iraunkorrean aurkezten duen eragin aintiinflamatorioagatik? :

- a) Budesonida
- b) Atropina
- c) Teofilina
- d) Salbutamol
- e) Terbutalina

5.- Ondoko farmakoetatik zein erabiltzen da urdaileko ultzeraren kontra?

- a) Famotidina
- b) Ibuprofeno
- c) Teofilina
- d) Kodeina
- e) Diazepam

6.- Urdaileko zelula parietalen H⁺/K⁺ ATPasa-ponpa modu itzulezinean inhibitzen duen farmakoa da:

- a) Ranitidina
- b) Misoprostol
- c) Salbutamol
- d) Ondansetron
- e) Omeprazol

7.- Goragarri-contrako efektua lortzen da ondorengo ekintza mekanismoaren bitartez:

- a) D2 hartzaile dopaminergikoen antagonismoa
- b) β_2 hartzaileen agonismoa
- c) 5-HT₃ hartzaileen agonismoa
- d) Antagonismo histaminergikoa H₂
- e) Agonismo opiazeoa.

8.- Hipertentsioa tratatzeko erabiltzen diren talde farmakologikoak ondokoak dira, bat izan ezik, zein?

- a) Diuretikoak
- b) β -blokeatzaileak
- c) Errenina-angiotentsina sistemaren inhibitzaileak
- d) Xantinak
- e) Kaltzio antagonistak

9.- Blokeatzaile β adrenergikoak:

- a) Guztiak dira kardioselektiboak
- b) Bihotz-gastua gutxitzen dute
- c) Bihotz-maiztasuna jaisten dute baina ez uzkurkortasuna
- d) Eragin desiragaitzen artean ez daude bronkoespasmok
- e) Eszitazioa eragin dezakete

10.- Ondoko farmakoetatik zein erabiltzen da anemia ferropenikoa tratatzeko?

- a) Eritropoietina
- b) Azido folikoa
- c) Burdin gatzak
- d) K bitamina
- e) Aurreko guztiak